**KIROLA** IÑIGO LARIZEK SAN PEDRORA IGOERAKO ERREKORRA HAUTSI DU
**ERREPORTAJEA** TRAFIKO ARAZOAK ELGOIBARREN · **GEHIGARRIA** EUSKALTEGIETAN ARIGERA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko urriaren 18a/X. urtea/421. zkia





BASKO RENT
GARBIKETA • MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA
Sigmako industrialdea 7. eta 8. pabiloiak
Tel.: 902 103 287
KONPONKETA TAILERRA
MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI ETA PREST!
GARBIKETA
2,50 €
GARBIKETA AUTOMATIKO PUBLIKOA
MANTENIMENDU OROKORRA • OLIO, BALAZTA
eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA
GARB1KETA BEREZIA
4,50 ei
GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATE)
3,50 €
SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE




ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
San Frantzisko, 43 -1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
ordutegi berria
1 0:00etatik-1 2:30era
1 5:00etatik-20:30era
Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 455 - 20600 EIBAR

BARREN
urteurrena

(1992 - 2002)



## Auskalo zenbat laguntaile!

Barkatuko diguzue, baina ezinezkoa da BARRENen laguntzen edo kolaboratzen jardun duzuenon izenak ematea. Paperetan begira hasi gara eta alde guztietatik azaltzen zaizkigu izen-abizenak. Proiektua prestatzen jardun zenutenok, hasierako bi zuzendariok, kazetari lanetan jardundakoak, iritzi orrietako dozenaka kolaboratzaileok, hizkuntza zuzentzaileok, diru kontuetan laguntzen jardun duzuenok, ordenadore kontuetan lagundu diguzuenok, notiziak ekarri dizkiguzuenok, erretratu zaharrekin etorri zaretenok, ... zuek ere tarte bat merezi duzue BARRENen 10. urteun̄enean.

Jon Gurrutxaga musikari eta kazetariak esan digunez, "kazetaritza idatzian nere lehen urratsak emateko aukera eman zidan BARRENek, era ezin hobean gainera, nire iritzia plazaratzeko parada emanez. Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eman zidan gero. BARREN gure hizkuntzari bizia emateko erreminta izugarria da, gertuko informazioa jasotzeko leihorik atseginena".

Juanito Gorostiza, berriz, jubilatuta dago eta sei urte eta erdi dira BARRENi laguntzen hasi zela. "SaiTitxan arazuak izaten dia. Bati erretraturen bat eskatu eta girau ezin, bestiak rebistan azaltzerik ez dabala nahi, ... Ernegazio batzuk pasau arren, herrixantzako da BARREN eta gustura jardun dot lantxuak egitten. Gainera, idazten piska bat ikasteko aukeria ere eman ditx BARRENek".

Mila esker denoi, bene-benetan. Eta inporta ez bazaizue, zuek eta bidean azalduko diren beste batzuek lagun hartuta gustatuko litzaiguke aurrera egitea. Bazatozte?



## Agian guk nahi duguna ez dator bat gure ideiekin

XX. mendean zientziaren aurrerakuntza izugarria izan da. Gaur egun existitzen diren deskubrimendu guztiek, bere garaian txundituta laga gintuzten. Gaur egun, zientziaren arlo nagusi batek genetikako arlo desberdinak jorratzen ditu: Gizakiaren ADNaren sekuentzia osoaren egitura eta datuak, gaixotasunen jatorri genetikoa, gaixotasun genetiko horren sendagaia.

Baina sendagai hauek, "celulas madre" deritzon zelulatik datoz. Horretarako, obulua ernaldu eta egun gutxitara zelulak bikoizten hasten dira. Obuluak forma eduki baino lehen, sortutako zelula desberdinak banatu egiten dira, gizaki baten jaiotzaren posibilitatea guztiz deuseztaturik gelditzen delarik. Hau da, abortua sortuz. Ondoren, banatutako zeluletatik gizakiaren organo guztiak sortuko dira, horiek behar diren bezala garatzen badira. Orduan, zientzialariek, gaixotasun hori sortzen duen kode genetikoaren aldaketa egiten dute, eta horrela, organo hori behar den bezala garatzea lortzen da. Beraz, mutazio hau egin ondoren gaixoaren gorputzean txertatzen da gaixotasuna menperatuz. Hau da, alzheimer, parkinson eta hainbeste gaixotasunen irtenbidea. Baina horrelako praktikek aurrez pentsatutako abortuak egitea aldarrikatzen du, eta hor sortzen da arazoa.

Gaur egun zientziak eta medikuntzak, batez ere, moralki oraindik gainditu ez ditugun trabak sortzen dituzte askotan, baina zeinek ez luke prozedura hori onartuko, baliagarria izanik, bere sendi edota laguna gaixorik balego? Momentuz medikuntzaren ikerketek gaixotasun hauek sendatzeko modu bakar hau eskaintzen digute tamalez.

Agian asko abortuaren kontra izango dira, baina gure irtenbidea hortik pasatzen bada, goiko galdera behin eta berriro egin beharko genioke geure buruari.

Nik ez dut dudarik, baina sendatzeko bakarrik, eta ez esperimentu genetiko bildugarriak egiteko.

**Jokin Martinez**

Kexak ........................................ 5
1110tZ 1\10t7., ........................................ 10
gehigarria ........................................ 13
kiRO1Ak >0
aGenda ........................................ 24

### ZAZPIKI IRRATIA

Aurten 111 urte beteko dira Zazpiki Irratiak estreinakoz uhinak astindu zituenetik. Garai haietan jendearen lanak "herriak herriarentzat eginiko irratia" posible izatea ekarri zuen. Urte hauetan guztietan jende ugarl eta oso desberdina pasa da Zazpikiko mikrofonoetatik. Irratiaren jarduna, jendearen partehartzearekin batera gorabeheraz beterikoa. izan da urtetik urtera programazioak aldaketa ugari izan dituelarik bai edukietan eta baita irratsaio kopuruan ere. Azken urteetan irratiaren jarduna gainhehera etorri da eta baita jendearen partehartzea ere, bai irratsaio egileak eta baita entzuleak ere, Herritarrok irratia entzuteko obitura gutxi bagenuen, orain gero eta gutxiago dira tramankulu hauek pizten dituztenak.

Pasa berri den denboraldian egoera honek behea jo zuen eta emisioa eten beharra izan zen. Baina, hala ere, urtea ez zen guztiz antzua suertatu, zenbait hitzalditan partehartzeaz gain eta urteroko urtemuga ospakizunez gain, Zazpiki irratiak apustua egin zuen beste irrati libre askorekin batera Arrosa proiektuan. Proiektu honetan irrati libreen arteko elkarlana bere fruituak ematen ari da, hala nola, materialaren (irratsaioak, deialdiak etab.) elkartrukerako sarea sortuz eta baita Arrosa magazinaren sorrera posible eginez, non irrati guztiek egunero informatiboak eskaintzeko aukera izango duten. Hau guzti posible izan da maila handi batean irratiek teknologia berrien alde apustu egin dutelako. Beste irratiekin izandako hartu-emanek agerian utzi dute gure irratiaren egoera kaskarra, bai ekipo aldetik eta baita lokalaren baldintzetan ere.

Honek guztiak Zazpikiko kideok hausnarketa bat egitera bultzatu gaitu irratiaren etorkizunari begira. Gaur egun inoiz baino ageriago dagoenean komunikabide publiko zein prihatuen boterearekiko menpekotasuna eta morrontza inoiz baino beharrezkoago ikusten dugu herrian Zazpiki bezalako komunikabide libre baten beharra. Argi daukagu gainera, Zazpikik herri mailan bete dezakeen papera oso garrantzitsua dela: euskararen nonnalizazioan, kultur sustatzaile moduan, kolektibo desberdinekin elkarlanean etab.

Hau guztia dela-eta gonbidapena luzatzen dizuegu Zazpikin inoiz parte hartu duzuenoi eta oraindik parte hartu ez duzuenei ere Iarunbatean, hilaren 19an, eguerdiko 12:00etan Kultur Etxean egingo dugun batzarrera hurbiltzeko.

LT:

Iñaki Bengoetxea Ansola
N.A.N. 15400716-P

# Urruzunoren begi ezkutua

## Esku anonimoak



Lagun batek kontatu zidan; guztiz sinesgarria den lagun batek, berak ere ezin zuen ikusitakoa sinetsi, hala esan zidan. Kinkon-eko zubian behera zihoan, errekako fatxadetako Ieiho batean finkatu zuen begirada zergatik jakin barik eta guztia ikusi zuen, segundo pare bateko kontua izan zen; di-da, rist eta raust. Leihoa zabaldu zen, zabor poltsa urdin handi bat eta berau oratzen zuen eskua azaldu ziren, zabor poltsa errekara erortzen utzi eta eskua desagertu egin zen leihoa danbateko batez itxita, han ezer gertatu izan ez bailitzan, ekintza zentzugabe hura esku anonimoak barik, ezkutuko indar ankerrek batek gauzatu izan balu lez. Duela gutxi ni neu izan nintzen halako beste gertaera baten testigu Txankakua zubia gurutzatzen ari nintzela. Esku anonimoek naturaren kontrako sarraskitxoak gauzatzen dituzte gure herriko hamaika txokotan erosotasunaren izenean. Esku horiek, anonimo izateaz gain, ezjakin eta arriskutsuak ere badira. Badirudi ez direla ohartzen egiten dizkiogun kalte guztiak anizkoituta itzultzen dizkigula naturak.

Unai Villena

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
PublIzitatea:
_943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topaguneazom
Helbide Informatikoa:
www.topagunea.comfbarren
ARGITARKZAILEA
Elgotarso izarra

LAMMILEA Elgolbarko Udala KOCIAINNUZAILEA Ainhoa Andonegii ZU2ENDARIA Asier Orbea KAUTARIA Iratl AgIrreazaldegi, PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue AOMINISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTAA Jon Peli Unguen XCLABORAMULEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Neslor Fuenle, Pello Mendizabal, Juan M. Eluslondo, Alberto Ansuategi, Edume 1311bao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jolun Marlinez, kronise Arregl, JuanIto Gorostiza. Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T„ AZALEKO ESAERA ZAHARRA GCIZOr1 Garalerell liburutik INPRIMMECIA Gartu Koop. E. Tursos 4.025 ale LEGE GORDNIVA 55-1 .035/92 155N 1139-1855

Er d ELGOIBARKO IZARRA

*Elgotharko Udalak, Eusko Jaurlarjrzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diraz lagundulako aldizkaria.*

Ic t x a

IDANOBAT
.01/1.9 XESPAIAIENTA

SSGOITI
GRLPO DANCI1AT

ESTARTA
UPC CAU.C16.7

• Gazte batek esan digunez, **Artekaletik San Roke auzora dauden eskilarak oso egoera txarrean daude: "Eskilarak** oso estuak dira, eta gainera apurtuta daude. Jende asko pasatzen da bertatik, eta oso arriskutsua da, jaisteko, batez ere". Luzaroan daramate eskilarek egoera kaskarrean, eta konpontzeko behar handia daukatela gaineratu du gazteak.



• Joan zen astean **Karkizano auzoan moztutako belarra** bertan botata utzi zutela-eta, kexa bat iritsi zitzaigun BARRENera. Aste honetan belar hori jasotzeaz arduratzen direnek deitu digute: **"Karroa estropeatuta geneukan, eta ezin izan genuen Iehenago jaso".** Hurrengoan kontu gehiago izango dutela adierazi digute.



01011\11

1 • **Ikastolako semaforoa zergatik falta da?** Esan digutenez, ingurune honetako obrak bukatu ostean jartzekoak ziren, haina oraindik ez omen dute semafororik ipini.
Udaltzaingora jo dugu, eta ondorengoa erantzun digute: "Ez **dugu semafororik ipiniko** Ikastolako bidegurutzean. **Altxatutako zebra bidea jarri dugu autoak polikiago joan daitezen,** eta horrekin nahikoa dela uste dugu".





# luto gehinV

***Autoa edukitzea aberatsen pribilegioa zen garai batean, baina gaur egun oso gutxi dira kotxea ez daukaten pertsonak. Ohiturak ere aldatu egin dira, eta oinez ibili beharrean, autoz mugitzen gara. Askotan denboraz larri ibiltzen da jendea, eta lanera ordurako iristeko kotxea hartzen du. Hala ere, badira berandu iristen direnak. Izan ere, ordu klabe batzutan sekulako trafiko arazoak sortzen dira. industriagune garrantzitsua da Elgoibar, eta asko eforizen da kanpotik lanera. Bestaide, N-634 errepidea pasaizen da herri erditik, eta trafiko handia pilatzen da. Hau guztia kontuan izanik, Elgoibarko puntu beltzak aztertu ditugu, eta irtenbideak bilatzen saiatu gara.***

## PUNTU BELTZAK BANAN-BANAN

### SIGMA AIROKO IRTEERA

Hemengo auzokideak errepidera ateratzeko daukaten irteera oso arriskutsua da, Eibarrerako norabidea hartzen badute batez ere. Autoak oso bizkor ibiltzen dira inguru honetan, eta gainera, errepidean aldapa dagoenez, askotan ez dira ikusten. Honetaz gain, auto bat irtetzeko zain badago eta beste batek auzora sartzea nahi badu, leku gutxi izango du.





### OLASO POLIGONOKO IRTEERA

Industrigune garrantzitsua da Olaso. Jende askok egiten du lana bertan, eta auto asko pilatzen da, lantegietako sarrera-irteera orduetan. Gainera, errepidean ere, auto ilara luzeak izaten direnez, oso zaila izaten da poligonora sartzea eta irtetzea.

**Irtenbidea:** Udala Olaso industrialdearen irteeran rotonda bat egiteko proiektua ikertzen ari da.

### SIGMAKO TUBIA

San Roke, Santa Ana eta Plaza Txiki inguruan bizi den jende gehiena Sigmako zubitik irtetzen da errepidera. Goizeko 8:00ak aldean, eguerdiko 13:00etan eta arratsaldeko 18:00ak inguruan pilatzen da trafiko gehien.

**Irtenbidea:** Udaltzaina egoten da ordu txarrenetan trafikoa apur bat arintzeko. Esan digutenez, rotonda egiteko estudioa egina dute, baina ez omen dago lekurik, inguruan etxebizitza hat dagoelako.





### URASANDIKO IRTEERA

Auzo honetako bizilagunentzat hau da errepidera ateratzeko irteera nagusia. Derrigorrezko norabidea jarri zutenetik, arazoa asko arindu da. Hala ere, auto ilara luzeak sortzen dira, goizeko 7:30ak inguruan, batez ere. Txankakuako zubian Udaltzaina egoten da jendea lanera sartu eta ateratzen den orduetan, eta horrek ere, asko laguntzen du.

# errepffie bakarrerako




### MADALAKO ZUBIA

Sigmako zubiarekin batera. hauxe da Elgoibarko puntu konfliktiboena. Pedro Muguruza Etorbideari norabidea aldatu zitzaionetik, auto gutxiago irtetzen da bertatik. Baina, hala ere, auto gehiegi pilatzen da. Ordu txarrenak goizeko 7:30ak, eguerdiko 13:00ak eta arratsaldeko 1 8:00ak dira. Udaltzaina egoten da ordu hauetan, baina auto ilara luzeak sortzen dira. Gainera, oinezko askok gurutzatzen du errepidea puntu honetan, eta semaforoa autoentzako gorri jartzen denean, trafikoa erabat gelditzen da.

Irtenbidea: Rotonda bat egiteko proiektua dauka Udalak, eta dagoeneko Foru Aldundiak onartu du. Gauzak ondo joanez gero, urte amaieran hasiko dira obrak.



### MELITONGO ZUBIA

San Pedro auzoko bizilagunak eta Pedro Muguruza etorbidekoak ateratzen dira hemendik. Errepidea autoz gainezka dagoen mornentuetan irtetzea izaten da zailena. Lantegietako sarrera-irteera orduekin batera pilatzen da trafiko gehiena puntu honetan.

Irtenbidea: Bertan rotonda egiteko asmoa dago.

### MENDARO

Mendaroko herria bi auzo nagusitan banatuta dago. Azpilgoeta eta Garagartza auzoetatik Errepide Nazionalera ateratzeko, bidegurutze bakarra dago. Ospitalerako sarbidea ere, zubi honetatik egin behar da, eta eskualdeko ospitala dela kontuan izanik, jende asko pasatzen dela aipatu behar da. Autoak abiadura handian pasatzen dira puntu honetatik, eta istripu larriak izan ohi dira bertan.

Irtenbidea: Mendaroko Udalak rotonda bat egiteko asmoa dauka. Proiektua onartu dute dagoeneko, eta ahal bezain laster hasiko dira obrak.




## HERRI BARRUAN ERE, TRAFIKOAREKIN ARAZOAK:



Anbulatoriou aurretal ela Estazio kaletik Son Rokera joaieko bideguru-tzeetan trafiko arazo handiak izaten ziren. Hori konpondu osmoz, Udalak ratondak jarri zituen bi puntu haue-tan. Trafikoa arinagoo du arain, ez da hainbeste ituron behar, eta ez da hainbeste ortopo egoten. Hala ere, rotonda hauetan ez dago leku asko-rik, eta surritan maniobra zaitak egin behar izaten dituzie gidariek.



# Ba al dago irtenbiderik?

*Udaltzaingora jo dugu, eta udaltzain-buruak esan digunez, ez da erraza gure herriko trafiko arazoa konpontzea. Hauek dira jaso ditugun erantzunak.*



**Trafiko arazo handia daukan herria al da Elgoihar?**

Trafikoaren arazoa gure inguruko herrietan dagoenaren antzekoa da, baina Eibar eta Ermuko herriak dutena baino baxuagoa dugu.

**N-634 Errepide Nazionalera irtecra eta sarrera asko dituen herria da Elgoibar. Zubi eta irteera asko edukitzea arazoa al da?**

Arazoa baino gehiago abantaila da zubi asko edukitzea. Autoen sartu-irteerak zatitu eta arindu egiten dira zubiei esker. Egoera askoz okerragoa izango litzateke kotxe guztiak Sigmako zubitik irtengo balira,

**Zubietatik errepidera ateratzeko arriskua handia al da?**

Trafikoa ugaria den sasoian, Udaltzainek zuzentzen dituzte zubletatik errepiderako sarrera-irteerak. Bestelako orduetan beste edozein bidegurutzek duen arrisku berbera dauka.

**Zein dira puntu txarrenak?**

Sigmako eta Madalako zubietako sarrera-irteerak.

**Zein dira ordu txarrenak?**

Goizean 7:30ak eta 8:00ak dira ordu txarrenak. Eguerdian 13:00ak, 13:15ak, 14:00ak eta 14:30ak. Iluntzean berriz, arratsaldeko 18:00ak eta 18:30ak. Lantegietako sarrera-irteera orduekin ugaritzen da trafikoa.

**Ikerketarik egin al duzue honen ingurnan?**

Bai, asko egin dira. Alde batetik Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen, lan honetan aditua den enpresa baten laguntzaz. Udalak enpresa berarekin beste ikerketa bat egin zuen.

**Zein izan daiteke irtenbidea?**

Ikerketaren arabera, hiru rotonda egitea izango litzateke irtenbidea: Lerunen, Madalan eta Olason. Herri barruan, berriz, alderik alde joateko bi norabidetarako bidea izatea, eta ahal den heinean trenaren erabilera bultzatzea.

**Pentsatu al duzue harianterik egitea?**

Plan Teffitorial Partziatean Udalak proposatutako ideia jasota dago. A-8 autopistaren gainetik, Azkoitiko errepide berriraino iritsiko litzateke bariantea.

**Udaltzain nahikoa al dago Elgoibarren?**

Ez da Udaltzaingoari dagokion konpetentzia, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua baizik. Rotondak egiten direnean, ez da Udaltzain beharrik izango trafikoa zuzentzeko. Bestalde, biztanleko Udaltzain kopuruari dagokionean, Euskadiko parametroen barruan gaude.





## 2003ko Gida Komertziala

BaRRen ASTEKARIA

Azkenengo gidan agertu ez bazinen edo zure negozioko telefonoa edo helbidea aldatu bada,

deitu **943 74 37 04** telefonora

### 25.000 lagun hiltzen dira gosez egunero, 6 milioi urtean

# {111PORTA AL ZAIGU JOIDEE, GOSE1 HILTZEN IKUSTEA5



**LISBET FUENTES**
**26 urte, irakaslea**

Noski inporta zaigula. Nik ahal dudan guztian laguntzen dut. Behar duen pertsona bat ikusten dudanean beti saiatzen naiz laguntzen. Katolikoa naizenez, eragin handia dauka nigan.



**ZULIMA COTRINA**
**25 urte, sukaldari laguntz,ailea**

Neri inporta zait, baina zerbait gehiago egin beharko genuke. Dirua, janaria eta erropak bidaliz, egoera asko hobetu daiteke.



**Ma PAZ ARKAUZ**
**48 urte, etxekoandrea**

Ohitxu ein gera, eta hemen ere arazuak ditxugunez, ez diogu inportantzia nahikua ematen. Gobernuak hartu biharko luke arazuan arduria, baina geure aldetik ere piskat ipinitxa, asko lortuko genduan.



**FRANCISCO SOTA**
**72 urte, jubilatua**

Inporta zaigu, baina askotan ahaztu egiten zaigu. Ezheharren bat gertatzen denean gogoratzen gara, baina egunerokoan geure arazoak ditugu, eta besteenak alde batera uzten ditugu.



**CHRISTIAN ALVAREZ**
**21 urte, langilea**

Eguneroko kontua da, eta batzuei inporta zaien arren, gehienok ez dugu ezer egiten. Gobernuak eta boterea dutenak konpondu beharko lukete arazoa. Guk ere, ahal dugunarekin kolaboratuz, asko egin dezakegu.



**JUAN IGNACIO AGIRRE**
**28 urte, langabetua**

Inporta zaigu, baina jende askok, besteen zeresana isiltzeko bakarrik egiten dute zerbait. Denok ere zerbait gehiago egin beharko genuke. Diru apur bat eta janaria bidaltzea garrantzitsua da.

• JOSE,llтètomi
(Txema)
**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.**
**Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

**OIERKI** IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
t' 943 82 01 09 t Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea 41 **20600 EIBAR**

## Herrian fibra optikoa sartzeko lanak 2003an amaituko dituzte

### Internet bidez informazioa azkarrago jaso eta bidaliko da

Fibra optikoa 2003. urterako herri osoan zabalduko dute. Egun, Bilbao-Behobia autopistatik sare nagusia Deba, Mendaro, Elgoibar, Eibar eta Ermuara hedatu da eta gero, sare txikiagoen bidez herriko auzo eta industrialdeetara eramatea da helburua.

Elgoibar 11 gunetan banatu dute eta herriko parte gehienetara eta Arriga eta Olasoko industrialdeetara eraman dute jadanik. Orain Albitxuri, Ibaitarte eta Kondia, Etxe-Tar eta Rodisa dauden industriguneak falta dira.

**Zertarako?**

Interneten inoiz nabigatu dutenek jakingo dute telefono bidez sarean sartzeak denbora asko kentzen duela. Izan ere, konektatzeko erabiltzen duten telefono lineak ez ziren testua, bideoak eta irudiak bidaltzeko sortu eta internetek horiek guztiak biltzen ditu. Hori da fibra optikoa herrian zabalduz konpondu nahi den arazoa. Hala ere, oraingoz nahiko garestia da fibra optikoa etxeetara eramatea, **beraz,** batez ere enpresek erabiliko duten ustea dago. Behin fibra optikoa herrian zabaldu ostean, norberak erabakiko du etxean erabili ala ez, horretarako konexioa egin behar baita.



*Hasieran industrian erabiliko dute batez ere fibra optikoa.*

Fibra optikoak komunikazioa hobetzeaz gain, aurrez dauden **sareak erabiltzen ditu hedapenerako. Gainera,** ez da **interferentziarik sortzen** ezta komunikazioa eteten ere.

Mendaro eta Ermuan etxebizitzen eremuaren %90ean jadanik jarri dute fibra optikoa. Deba eta Elgoibarko lanak 2003 urterako amaitzea espero dute; Eibarren, berriz, 2004rako. Mutriku ere sare nagusian sartzeko asmotan da eta Soraluze eta Mallabik oraingoz fibra optikoa ez sartzea erabaki dute.

Beraz, Debabarreneko herri gehienetan fibra optikoa sartuta izango da eta komunikazioa hobetuko du.

## Artisauen Omenezko Oroigarria eman diote Koldo Lizarralde etnografoari

### Urdangarin eta Izagarekin idatzitako "Oficios Tradicionales" bildumagatik jaso du saria



*Koldo Lizarralde 20 urtez aritu da lanbideei buruzko informazioa biltzen.*

Koldo Lizarralde etnografo elgoibartarrak Artisauen Omenezko Oroigarria jaso zuen Carmelo Urdangarin eta Jose Mari Izagarekin batera Gabiltza Gipuzkoako Artisauen Elkartearen eskutik. Ordizian joan den asteburuan ospatu zen bosgarren Artisaualdiaren barruan egin zieten omenaldia. Oroigarriarekin "Oficios Tradicionales" liburu bilduma idazten hartutako lana eskertu nahi izan diete elkartekoek. Izan ere, 20 urte dira Lizarralde, Izaga eta Urdangarinekin batera desagertuta edo desagertzear dauden ofizioen inguruan ikertzen hasi zirela. Ikertutakoa liburuetan bildu eta jadanik zazpi idatzi **dituzte eta zortzigarrena prestatzen** ari dira. Koldok berak taldean jarraitzen ez badu ere ikerketa lan ugari egiten du oraindik eta ahal duenean baita beste biei lagundu ere.

**Lanean jarraitzeko gogoa**

Koldo Lizarraldek esan digunez, "artisauek beraiek guk egindako lana honela baloratzeak asko pozten du bat. Izan ere, 20 urteotan egindako lana eskertu dute modu honetan. Gainera, saria artisau lan bat izan da eta horrek beste edozein plakak baino esanahi bereziagoa du". Omenaldi hau jasotzeak lanean jarraitzeko animoa eman diola ere esan digu Lizarraldek: "Artisau lanetan ari den jendeak gugan eta gure lanean zerbait **berezia ikusi du eta nik bildumarekin** jarraitu ez arren lanerako indarra ematen du horrelako aipamen bat jasotzeak".

## Enpresa gestio ikastaroa egiten ari dira Debabarreneko 25 emakume



Debabarreneko 25 emakume Debegesak antolatutako enpresa gestioari buruzko ikastaroa egiten ari dira. Gehienak metal arloan diharduten arren, badira zerbitzuetan lanean ari direnak ere. Ikastaroaren helburua enpresa gestioan lan egiteko erremintak eskaintzea da. Beraz, emakumeok ikastaroa bukatzean enpresetako gestioa hobetzeko irizpideak hartu ahal izango dituzte. Izan ere, partaide guztiek enpresetako gerentziekin harreman zuzena dute. Besteak beste, marketina, zuzendaritza, ekonomia, kalitatea eta teknologia izango dira 100 orduko ikastaroan landuko dituzten gaiak. Debegesak emakumeei laguntzeko antolatutako beste jardunaldietako bat da honako kurtsoa.

## Misquik bonoak salduko ditu Perurako dirua biltzeko

Misqui Erakundeak Perurako dirulaguntza bildu asmoz kanpaina berria jarri du martxan. Iaz bildutako diruarekin negutegi bat eraiki zuten eta bertako bizilagunei laguntza ekonomikoa eman zieten. Baina hori ez da nahikoa eta hasitako lanak jarraipena behar du. Beraz, Misquiko kideek bonoak salduko dituzte dirua lortzeko. Herritar arruntek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta enpresentzako eta merkatarientzako 50 eurokoa izango da salneurria. Bonoak erosten dituztenen artean Gemma Monreal Margolariaren koadro bat zozketatuko dute.

## Nagusilan elkarteak bere lanaren berri emateko hitzaldiak antolatu ditu

Argazkikoak San Lazaro Egoitzako bizilagunak eta langileak dira. Donostiako Aquariumera egin zuten bisita eta txangoan Nagusilan elkarteko kideak izan zituzten laguntzaile. Edadeko pertsonek osatzen dute Nagusilan taldea. Bakarrik daudenei astean bi orduz beraiekin hitz egiten, paseatzen, irakurtzen... boluntario moduan lagunduz aritzen dira. Edozeinek egin dezake lan hau eta ez da prestakuntza berezirik behar. Bestalde, Nagusdan jende artean ezagutzera emateko hitzaldiak antolatu dituzte. Interesatuek 943 74 13 73 telefonora deitu beharko dute



jeti4 40.IltOt ct, Cubp.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tei.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR



karflizano

San FrantEisko. 14 TeL 943 74 05 49

San Bartolome, 18

Tel. 943 74 08 49

ibM11111111

# Ikastolak kirol eskaintza berria aurkeztu du 02-03 ikasturterako

Elgoibarko Ikastolak beste ikastetxeekin batera, partehartze zuzena dauka eskola kirolaren antolakuntzan. Aurtengo ikasturtean 8-12 urte bitarteko ikasleei, esko]az kanpoko orduetan kirolean jarduteko aukera zabala eskaintzen zaie. Honekin batera, ikasturte berrirako eskaintza zabalagoa prestatu du Elgoibarko Ikastolak. Honela, 6-18 urte bitarteko ikasleei kirol jarduerak praktikatzeko aukera gehiago emateaz gain, beren adineko beste ikasleekin erIazionatu eta sozializatzeko aukera eman nahi zaie. Hona hemen, Ikastolaren eskaintza berria:



*Haur krosean parte hartu zuten ikasleak ageri dira argazkian. Hurrengo Haur Krosa apirilaren 6an izango da.*

### Ikastolaren eskaintza berria:

- Aurrekirola: 6-8 urte.
  Eskolarteko jokoak: 8-14 urte. Astean bi entrenamendu eta larunbatean partiduak.
- Natur ekintzak: 16-18 urte bitarteko ikasleentzat ekintza bereziak.
- Mendizaletasuna: 2-16 urte. Guraso eta ikasleentzat hilabetero antolatutako

ro Ekintza puntualak: apirilaren 6an Haur Krosa eta martxoaren 15ean Pilota Eguna.

## Pilar Ikastetxeko ikasleak San Pedrora eta Arratera egin zuten txangoa irailaren 27an

Pilar Ikastetxeko LHko eta DBHko ikasleak San Pedro eta Arraten izan ziren egun pasa joan zen irailaren 27an. LH4. mailara arteko ikasleak San Pedrora joan ziren, eta bertako elizan, ikasturte hasierako otoitza egin zuten. LH5, 6 eta DBHko ikasleak, berriz, Arratera joan ziren Ama Birjinari eskaintza batzuk egitera. Perretxikoak biltzeko aukera izan zuten, eta egun oso polita pasatu zutela adierazi digute.





## Ikastolako ikasle eta gurasoak Harakaten izan ziren joan zen urriaren 13an

Karakate eta Hirukurutzeta arteko ibilaldia egin zuten joan zen igandean Ikastolako ikasle eta gurasoek. 40 lagun bildu ziren guztira, eta eguraldiak lagundu zielarik, egun bikaina igaro zuten. Hurrengo mendi irteera urriaren 27an, Eskolarteko lehiaketaren finalista egunean izango da Azpeitiara.

euskaltegietan arigera
Elgoibarko HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEARI eskainitako gehigarria

# 1 20 lagunek eman dute izena euskara ikasteko AEK Euskaltegian eta Udal Euskaltegian

*Azken urteotako beherantzko joerak bere horretan jarraitu du eta 120 ikasle matrikulatu dira aurten Elgoibarko euskaltegietan, iaz baino 25 gubciago eta duela bi urte baino 38 ikasle gutxiago, hain zuzen ere.*

*120 lagun horietatik 53 behe mailakoak dira, 22 erdiko mailakoak eta 49, berriz, goi mailako eskolak hartuko dituztenak. AEK Euskaltegiko eta Udal Euskaltegiko arduradunek adierazi digutenez, hainbat pertsona falderik gabe dago. Beraz euskara ikasteko izena emateko aukera dago oraindik.*

*Aste honetako gehigarrian 2 euskaltegietan euskara ikasten ari diren talde guztiel, 12 taldeei, argazki bana afera diegu.*

## Behe maila



**Tente, ezkerretik hasita:** Eneritz, Jose Luis (irakaslea), Susana, Mari Karmen eta Rosa.
**Eserita:** Zsoka, Marinalda, Ingrid eta Slabik.
**Argazkian falta dira:** Ines eta Manolo.

## Goi maila




**Eserita, ezkerretik hasita:** Roberto, Vanessa, Miriam, Lucia eta Irene.
**Tente:** Ainhoa, Patricia eta Amaia (irakas(ea).

## MATRIKULAZIO DATUAK

| | 99-00 IHASTIIRTEA | 00-01 IKASTURTEA | 01-02 IKASTURTEA | 02-08 IKASTURTEA |
|---|---|---|---|---|
| BEHE MAILA | 78 | 89 | 83 | 53 |
| ERDIKO MAILA | 42 | 10 | 22 | 26 |
| G0I MAILA | 41 | 59 | 49 | 38 |
| GIETIRA | 158 | 158 | 134 | 115 |
| TALBERIK GABE | | | 11 | 5 |

** Datu hauek ikasturte hasierakoak dira*

## Erdiko maila



**Tente, ezkerretik hasita:**
Ines, Izaskun (irakaslea), Luis Mari, David, Ernesto eta Pepi.
**Eserita:**
Patxi, Eva eta Mikel

## Erdiko maila



**Behetik hasita, ezkerretik eskumara:**
Trini, Begoña, Paki, Jesus, Ana, Marisol eta Susana (irakaslea).

01

## Erdiko maila



Tente:
Agurtzane (irakaslea)
Eserita, ezkerretik eskumara: Fernando, Javi, Sandra eia Emi
Argazkian falta dira: Jose Ignacio, Luis, Marga eta Maife,

## Behe maila



Tente, ezkerretik eskumara:
Montse, Montaña, Rosa, Agurtzane (irakaslea) eta Azucena.
Eserita: Beatriz, Lorena, Anabel, Isabel, Rocio, Paula eta Ana.
Argazkian falta dira: Lola, Pedro eta Lurdes.

## Behe maila



**Ezkerretik hasita: Pili (irakaslea), Teresa, Eduardo, Carlos, Floren, Nora, Silvia, Patxi eta Vicente.**

## Behe maila



**Atzeko ilaran, ezkerretik eskumara:** Musti, Mertxe eta Alfonso (irakaslea).
**Aurreko ilaran:** Imanol, Mari eta Eduardo.
**Argazkian falta dira:** Javi, Kontxi eta

## Goi maila



**Tente, ezkerretik hasita:**
Juan Carlos, Mari Jose, Jose Ramon, Fernando eta Itziar (irakaslea).
**Eserita:** Cesar, Mari Jose eta Elena.
**Argazkian falta da:** Iñaki

## Erdiko maila



**Ezkerretik eskuinera:**
**Maria, Maria Angeles, Gorbiñe, Encar, Begoña, Delia eta Alfonso (irakaslea)**
**Argazkian falta dira:**
**Neli, Alicia, Mikel, Carolina eta Sebas.**

## Goi maila



**Tente, ezkerretik hasita:**
Mari Cruz, Iñaki, Paco, Josean, Ainara eta Itziar brakaslea)
**Eserita:**
Isabel, Alex eta Xabi

## Behe maila



Tente, ezkerretik hasita:
Amaio (irokaslea), Loli, Ainhoa, Mariaje
Eserita:
Kontxi, Ana, Rocio, Loli eta Mariaje

## TERTULIEKIN HASTERA GOAZ!!

**Oraindik ere izena emateko aukera daukazue, bai euskara ikasleok eta baita euskaldun zaharrok ere.**

**arigera**

Dasa den ikasturteko arrakasta ikusita, aurtengoan ere **BERBA LAGUNA** egitasmoa martxan ipintzera doa **ARIGERA** proiektua.

Astean behin, euskaldun zaharrak eta berriak elkartu eta, ordubetez, euskaraz berba egiteko elkartzen dira lauzpabost laguneko taldeak.



Zuk ere (euskaldun zahar edo euskaldun berri), tertulietan parte hartu nahi baduzu, deitu lel-senbailehen Elgoibarko Izarrara (943 741626 telefonora; Amaia) edo bi euskaltegietako batera (Udal Euskaltegia: 943 74273-1. **AEK** euskaltegia: 943 741332). Izena emateko azken eguna urriaren 25a izango da.

1

# informazioa

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 18 | Fernandez | Fernandez |
| 19 | Yudego | Yudego |
| 20 | Yudego | Yudego |
| 21 | Zabaleta | Zabaleta |
| 22 | Etxeberria (Errosorio kaleanl | Etxeberria |
| 23 | Ibañez | hañez |
| 24 | Bidasolo | Bidasolo |
| 25 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tek 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza **4,** Garagarza,
Tek 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kafebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
•eguercliko 2ak arte

**OKINDEGIA**
**20 igandea Ibarrenea**

## Eusko

**DONOSI'IA-BILLIO**
**Egunero**
Donostia ..1.■likkA 5.45 06.45... 20.15
Elgoibar 47.02 01.02.. 22.02
raieguneran 7.45ean hasiko dira

**BILMIDONOSTLA.**
**Egunero**
06.00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08423... 21.23
• j3Segonetan 8.00etan dira

## Eusko, TTOB1"SAK

**MENDARO-ELGOLBAR**
**Egunero**
**Mendaro** 07.50 08.50... 21.50

**ELGOMAR-MENDARO**
**Astegunetan**
**Elgolbar** 07.25 08.25 10.25 21.25

**jaiegunetan**
**Elgoibar** 08.25 09.25 10.25 21.25

## PES AUTOBUsAK

**IARUNBAT GAUA**

**EIBAR-ONDARROA**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | **02.30** | **04.30** | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 0250 | 01.50 | 0fi 60 |
| Mutriku | 00,55 | 02 55 | 0.55 | 06 55 |
| Ondarroa | 01.05 | 0305 | 05.05 | 07 |

**ONDARROA-ELBAR**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03 30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05 40 |
| Deba | 23.45 | 01.-15 | 03.45 | 05,45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eihar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

**EIBAR-MUTRIKU**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 01 00 | 02.30 | 04.30 | 06 00 |
| Elgoibar | 01.14 | 02.40 | 04.40 | 06.10 |
| Deba | 01.20 | 02.50 | 04.59 | 06.20 |
| Murriku | 01.25 | 02.55 | 04.55 | 06.25 |

**MUTRIICU-EIBAR**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Mutriku | 00.00 | 01 30 | 03.30 | 05.30 |
| 1)eha | 00 05 | 01.35 | 03.35 | 05.35 |
| Elgoibar | 00.15 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Eihar | 00.25 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |

**EIBAR-AZPEITIA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eibar | 01.30 | 03.30 | 0530 |
| Elgoibar | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Azkoitia | 01.50 | 03.50 | 05.50 |
| Apeitia | 01.55 | 03.55 | (5.55 |

**AZPEITIA-EIBAR**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Azpeitia | 00.30 | 02 30 | 04.30 |
| Azkoitia | 00.35 | 02 35 | 04.35 |
| Elgoibar | 00.45 | 02.45 | 04.45 |
| Eibar | 00.55 | 02.55 | 04.55 |

*Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel. 902 101 210.*

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**
Anbulatorioa .................... 943 03 26 10
Planning-a.................... 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak .................... 943 74 03 85
D.YA (anbulautzia) .................... 943 46 46 22
Gurutze Gorria .................... 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea .................... 943 03 28 00
Odol Emaileak .................... 943 74 39 36

**GARRAIOAK**
Eusko Trenbideak. .................... 902 54 32 10
PESA (Eibar) .................... 902 10 12 10
Taxi geltokia .................... 943 74 08 98

**UDALA**
Euskara Zerbilzua .................... 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua .................... 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua .................... 943 74 21 58
Mendaroko Udala .................... 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua .................... 943 74 10 08
Udaletxea .................... 943 74 10 50
Udaltzaingoa .................... 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**
Elgoibarko Izarra .................... 943 74 16 26
Kiroldegia.................... 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa .................... 943 74 30 88
Liburutegia .................... 943 74 35 25
Musika Eskola .................... 943 74 21 45
Mintxeta .................... 943 74 43 15
Parrokia .................... 943 74 08 42
Postetxea .................... 943 74 15 47
Gaztetxea .................... 943 74 35 72

**ADINEKOEN ETXEAK**
San Lazaro Egoitza .................... 943 74 02 96
Zaharren Biltokia .................... 943 74 05 26
Eguneko Zentroa .................... 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**
Haur Eskola .................... 943 74 21 41
HHI (EPA) .................... 943 74 08 80
Herri Eskola .................... 943 74 08 79
.................... 943 74 41 32
I nstitutua
Arreiturre .................... 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) .................... 943 74 80 19
Ikastola .................... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.................... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**
BARREN.................... 943 74 41 12
El Diario Vasco .................... 943 74 40 73
El Correo Espatiol .................... 943 74 10 82
Zazpiki irratia .................... 943 74 34 74
Egunkaria .................... 943 30 02 22
Gara .................... 943 31 69 99

# nola ALDATU diren gauzak!

2002-X-18

**1953.** urteko urriaren I5ekoa da erretratu hau. Ikusten den bezala, sekulako ufalak izan ziren egun honetan Elgoibarren. Erretratuan Urasandiko auzoa ageri da. Garai hartan etxebizitza gutxi batzuk eta hainbat lantegik osatzen zuten auzoa. Goiko aldean ikusten den etxebizitzan Pedro Osororen tindategia zegoen. Argazkian ageri den moduan, mendia eta berdegunea zen nagusi auzo honetan. Harrigarria da honelako mendian gaur egun hainbeste etxebizitza ikustea . Itxura beldurgarria azaltzen digu erretratuak. Ikusten den bezala, Madalako zubia falta da, eta esan digutenez, urak eraman zuen. Egun triste eta gogorrak bizi izan ziren garai hartan Elgoibarren.






2002ko argazki honetan, zeharo aldatuta ageri zaigu ingurune hau. Lehen mendia zegoen lekuan, auzo berria eraiki dute. Harrigarria dirudien arren, etxebizitza ugari egin dituzte hertan, eta auzo handia bihurtu da. Urasandi. Urte asko pasatu dira, eta industria ere, izugarri hazi da Elgoibarren, eta paraje honetan mota desberdinetako lantegi berriak eraiki dituzte. Duela gutxi, eskailera mekanikoak egin dituzte auzokideei etxera igotzeko erraztasunak eman asmoz. Jende asko bizi da bertan, eta mugimendu handiko auzoa da Urasandi. Argazki honek itxura hobea dauka, eta Madalako zubia tente-tente ikus dezakegu.

Juanito Gorostiza

# Liburu bana kaleratu dute Jasone Osorok eta Juan Luis Mugertzak

## Juan Luisek *Astoari konfiturak* idatzi du eta Jasonek *Korapiloak* Gazteleratu du

Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarrak *Korapiloak* liburuaren gaztelaniazko bertsioa kaleratu du *Desnudos* izenburupean. Sei x—B arral argitaletxeak argitaratu du iaz Elkarlanean argitaletxeak plazaratutako lana eta Jasone Osoro bera arduratu da liburua euskaratik gaztelaniara itzultzeaz. Elkar lotuta dauden 17 ipuinek eta beste horrenbeste poesiek osatzen dute erotikotasun kutsu nabarmena duen *Korapiloak* lana. Liburua Igartza Literatur Sariketan aipamena lortu ostean idatzi zuen Jasone Osorok. Korapiloak liburuarekin Zilarrezko Euskadi Saria eskuratu zuen iaz. Bartzelonan egin zuen hilabete hasieran *Desnudos* liburu berriaren aurkezpena. Izan ere, Sorginen Laratza telebista saioan gidoilari moduan aritu ostean, Kataluniako hiriburuan ari da gidoigintza ikasten.







### Mugertzaren hirugarrena

Bestalde, Aizkorri argitaletxeak Juan Luis Mugertza idazle elgoibartarraren *A.vwari konfiturak* liburua kaleratu du. 14 urtetik gorako edozeinek irakurtzeko libura da. Jose Mariren kontuetaz ari da liburuan Mugertza: Bizikleta zaharra alboratu eta berria erosi ostean, honek ekarritako gorabeherak eta Bilbon bizitakoak kontatuko dizkigu. Lehenaren eta orainaren arteko konparazioa eginez, egungo kontsumorako beharrak eta balioak zalantzan jarriko ditu, beti ere barrea eraginez. Egilea elgoibartarra bada ere, Berangon bizi da gaur egun eta irakasle lanetan aritzen da. Bizkaiara joan arren, ez du ahaztu ez herriko berbetarako modua. Izan ere, Juan Luis Mugertzak liburu honetako elkarrizketak elgoibartarrez idatzi ditu. Bere hirugarren lana da hau eta elgoibartarrok herriko hizkeran irakurtzeko aukera izango dugu.

# "Helduen arteann diskoa aurkeztuko du Mikel Urdangarinek urriaren 25ean Herriko Antzokian



Mikel Urdangarin zornotzarraren kantaldia antolatu du Udaleko Euskara Batzordeak Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaz. Euskal Kantagintza egitasmoaren barruan izango da kontzertua datorren ostiralean, urriaren 25ean, gaueko 22:15ean Herriko Antzokian.

Mikel Urdangarinen bosgarren lana da "Helduen artean" diskoa. Hamabi kantetatik gehienak berak konposatuak dira eta tartean bada katalanez abesten duen abesti bat ere. Lehengo folkari ukitu urbanoak erantsi dizkio oraingo diskoan eta abesti batzuek jazz kutsua hartu dute. Disko berriarekin ez ezik, eraberritutako taldearekin etorriko da Urdangarin.

Mikel Urdangarinen musika gustuko dutenek nahi izanez gero kantaldirako sarrerak aurrez eros ditzakete Euskara S ailean, Kultur Etxean, goizeko 7:30etik 15:00etara 5,25 euroren truke.

# Urriaren 22an hasiko dira Ongarri ane Klubeko emanaldiak

Udako etenaldiaren eta Donostiako Zinemaldia zela-eta antolatutako ziklo bereziaren ostean, datorren asteartean hasiko ditu Ongarri Zine Klubak ohiko zine emanaldiak. Urriaren 22tik azaroaren 2 Iera bitartean 5 pelikula botako dituzte: *La playa de los Galgos, Little Senegal, Waking Life, Demasiado Amor* eta *Smoking Room* hurrenez hurren. Aste bakoitzean pelikula bat izango da ikusgai, baina bi saiotan: astearteetan 21:30ean eta ostegunetan 22:15ean. Mario Camusen *La playa de los Galgos* filmak irekiko du denboraldia. Biolentziari buruzko gogoeta konplexua da honako hau.

# Iñigo **Larizek San Pedroko igoeraren errekorra hautsi du**

## 29 segundutan hobetu zuen Susoren errekorra

Cafes Baque afizionatu taldeko Filigo Lariz elgoibartarrak hirugarren urtez jarraian irabazi zuen Julian San Juanen oroimenez Elgoibarko Lagun taldeak antolatzen duen San Pedoko Txirrindulari Igoera. Irabazteaz gain probako errekorra apurtu zuen. Plaza Handitik San Pedro gainera dauden 4 kilometroak 13 minutu eta 21 segundu eskasetan egin zituen Iriigok. Beraz, Jose Mari Fernandez Susok 1999an egin zuen errekorra (13'50") 29 segundutan hobetu zuen. Suso izan zen helmugaratzen bigarrena, irabaz-learengandik minutu eta zazpi segundura. Hirugarren postuan lban Gonzalez gazte elgoibartann iritsi zen (14''51''). Guztira 50 txirrindulari ausartu ziren San Pedroko aldapa gogorrei aurre egitera, tartean 32 elgoibartar. Euria izan zen Pilarika Eguneko protagonista, baina eguraldiak ez zituen parteahartzaileak kokildu, ezta ikusleak ere, beraien animoekin giroa berotzea lortu baitzuten.



### XI. SAN PEDROKO TXIRRINDULARI IGOERA

**EIGOIBARTARREN SAIKAPENA**

1-Iñigo Lariz **13'21"(errekorra)**
2-Jose M. Fdez. Suso 14'28"
3-Iban Gonzalez 14'51"
4-Joseba Gonzalez **17'20"**
5-Ernesto Rodriguez 17'35"
6-Gregorio Garcia **18'10"**
7-Gorka Zaragozano 18'23"
8-Aitor Romera **18'58"**
9-Beñat Urain 18'58"
10-Iñaki Konde **19'24"**
11-Antonio Lendinez **19'47"**
12-0ler Oñederra **19'51"**
13-Ricardo Huidobro **20'16"**
14-Asier Arregi **20'16"**
**15-Jurdan** Ecenarro **20'16"**
16-Eduardo Arrona **20'22"**
17-Jon Vicente Lopezosa 20'22"
18-J. Antonio Gurrulxaga 20'55"
19-Arkaitz Martinez 21'06"
20-Alfredo irusta **21'33"**
21-Jorge Cid **21'45"**
22-Ibai Azkoitia **22'31"**
23-Alfonso Leo **23'20"**
24-Angel Arregi **23'26"**
25-Eneko Ramos 24'14"
26-Jon Agirregomezkorta **24'21"**
27-Jose Angel Calvo **24'58"**
28-inaxio Garmendia **26'05"**
29-Iiiigo Irusta **26'29"**
30-Enrique Fernandez 26'55"
31-Manolo Ramos **27'56"**
32-Antonio Rodriguez **30'02"**

# 70 lagunek egin zuten Barazartik Krutzetara trabesia Morkaikorekin



Lagun mordoa bildu zen Morkaiko Mendizale Elkarteak urriaren 13an antolatu zuen azken mendi irteeran, 70 mendizale hain zuzen ere. Barazarko mendatean (605 m.) goizeko 9:15ean oinez hasi eta Krutzetako mendatean (690 m.) zain zuten autobusera arratsaldeko 17:30ean iritsi zirela azaldu digute Morkaikoko zuzendaritzakoek. Tartean Dimako mendatea (595 m.), Saibigain (946 m.), Urkiolako mendatea (710 m.), santutegia, Zabalandi lepoa (Araba eta Bizkaiaren arteko muga), Oriso (1.128 m.) mendia eta Santa Kruz baseliza pasa zituzten, besteak heste. Astebete lehenago Zumarragako Kilometrotara egindako irteeran moduan eguraldi zoragarria izan zutela lagun gaineratu digute.

# Futbola, 2002/2003 denboraldia. Taldeen aurkezpena

## JUBENILAK



**Tente, ezkerretik eskumara:Juan Martin (delegatua), Juan Antonio Martin,** Iban Murua, Iiiigo Irazabalbeitia, Asier Atrio, Unai Mujika, Andoni Etxabe, Antxon Ezenarro, David Morais, Mikel Ruiz, Xabi Alonso (entrenatzailea) eta Iker Arrillaga..
**Makurtuta:Andoni** Amiabarrena, Unai Gazteain, Breiso Conde, Iban Konde, Mikel De Pablo, Egoitz Rodriguez, Ander Almenara, Xabat Molina eta Haritz Calvo.
**Argazkian falta dira:** Eneko Etxeberria eta Asier Elustondo.

## NESKAK



**Tente, ezkerretik eskumara:** Ibana Ortueta, Amaia Epelde, Ane Izeta, Ainhoa Alberdi, Miriam Garcia, Irene Elorza, Leire Egaña, Saioa Rodriguez, Roberto Garcia (Entrenatzailea) eta Maite Linares. **Makurtuta:** Alberto Hernandez (Entrenatzailea), Dorleta Aranberri, Alaitz Merino, Nagore Lueches, Marta Diez, Saioa De Pedro. **Argazkian falta dira:** Ainaia Gorrotxategi, Amaia Zabaleta, Eneritz Arrillaga, Ines Segura, Kannen Bastarrika, Lorena Babarro, Lucia Dieguez, Maider Diez eta Maider Rejas.

## 2002-2003 ikasturteko Eskola Kirola urriaren 19an hasiko da

Larunbatean emango zaio hasiera 2002-2003 ikasturteko Elgoibarko Eskola Kirola programari. Herri Eskola, Elgoibar Ikastola, El Pilar, Herri Institutua eta Mendaroko Ikastola dira programa honetan parte hartzen duten ikastetxeak. Benjaminetan 12 taldek eman dute izena taldekako kiroletan, hau da, saskibaloia, futbola eta eskubaloia. Alebinetan 13 taldek hartuko dute parte eta infantiletan, berriz, 10 taldek. Urriaren 19an hasi eta uztailaren 12an amaituko da. Ikasturtean zehar haurrek taldekako kirolak eta bakarkakoak (atletismoa, eskalada, arku tiraketa, igeriketa eta tenisa) ezagutzeko aukera izango dute. Antolaketan ikastetxeak, Udal kirol patronatua eta klubak aritzen dira.

## EMAITZAK

### Futbola

**Haundi 4 - Hondarribia 0 (Prel.)**
Orioko **4-** Elgoibar **2 (1. erreg.)**
Billabona 1 Elgoibar **2 (Jub.)**
Elgoibar 0 - Ilintxa **4 (Kad.)**
Elgoibar 1- Eibartarrak **1 (Neskak)**
Touring 0 - Elgoibar **1 (Int.)**

### Esku pilota

**Gipuzkoako Txapelketa**
**M. PortulTxurruka 22** (Lagunak)
Igartua/Dominguez **7**
**Eizmendi/Lizarrakle 5**
**Ansola/Balzola 22 (Lagunak)**

### Eskubaloia

Gaur Elg. 15 • Gatz Jakion **22 (Jub.mut.)**
Tecnomeca **21** - Urduliz **16 (Kad. mut.)**
**Pneumax 23** - Urduliz **23 (Jub. mut.)**
Gaur **17** -Alotta Mendi **13 (Jub. mut.)**
Portugalete **20** - Tecnifuelle **23 (Seni.** mul.)
Askartza **18** - Pagoaga **11 (Kad. nesk.)**
Askartza **8** - Cometel **Elg. 19 (Jub. nesk.)**

### Areto Futbola

**A.D.** Periticas **6** - Kenci Elg. 3 (Naziona I A}

## AGENDA

### Areto Futbola, Kiroldegian

**Barixakua, 18**
**22:10** Lanbroa - Lazkao (1. maila}
**Zapatua, 19**
**16:00** Kenci- Carnicerias Saenz (Naz. A)

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 19**
**16:00** Elgoibar - Idiazabaf **(1. erreg.)**
18:00 Elgoibar - Eibartarrak **(Jub.)**
**Domekla, 20**
**10:30** Elgoibar- Arrasate **(Kad.)**
**12:00** Elgoibar- Real Union **(Int.)**

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Zapatua, 19**
**17:30** Cometel - San Adrian **(Jub.** neskak)
**1100 Pagoaga** San Adrian (Kad. neskak)
**Domekla, 20**
**12:30** Tecnifuelle - Bergara (Senior mut.)

## Langai

Euskal Lan ZerbitZua

Debabarreneko enpresak **4 elektrizisto behor ditu. Erref. 89694/7**

**Durangaldeko aldi baterako enpresak elektrizista** behar **du. Erref. 88533/2**

Durangaldeko aldi baterako enpresak **CNC programatzailea behar du. Erref. 88236/2**

**Durangoko** jatetxeak **Icamareroa** behar du. **Erref. 88986/3**

Durangaldeko aldi baterako enpresak **Catia operadorea behor** du. **Erref. 89034/2**

Durangaldeko aldi baterako enpresak **produkzio pianifikatzaitea** behar **du. Erref. 89928/1**

Durangaldeko enpresak **metrologoa behar du. Erref. 89031/2**

Azpeitiako enpresak **bidaia kontseilaria behar du. Erref. 88220/3**

Donostiako enpresak **malaiera itzultzailea behar du. Erref. 88989/2**

Bilboko enpresa **batek kroaziera** behar du, **Erref. 88979/2**

Azpeitiako enpresa **batek frantsez irakaslea** behar **du. Erref. 87196/7**

Berrizko aldi baterako enpresak **CNC torneroabehor du. Erref. 90220/1**

**Elorrioko** aldi baterako enpresak **CNC torneroa behar du. Erref. 89388/3**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi boduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zenhu laguntzaile kmuetoko bafera deitu Eigolarko Institutua 943 74 80 19 edo ImH (Nora Ramdm) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

### ESKAERA

• Rasta eta trentza txikiak egiten dira. 71- **686 17 87 *84***

*Multimedia zerbitzuak burutzen ditugu: eskolako lanak, mc-cd, argazki digitalak.„ **is 626 36 95 53/679 21 88 68**

• Neska etxeko lanak egiteko edo bulegoak garbitzeko prest. **sr 687 04 32 05**

*Esperientziodun emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. ma. **943 74 22 01**

• **Gazte batek** bere burua eskaintzen du asteburuan eta aste barruko egun batzutan lan egiteko. trr **680 27 94 32**

• **Gazte batek bere burua** eskaintzen du asteburuetan edozein lan egiteko. tr **669 24 55 20**

♦ Emakumea edozein lan egiteko prest. (Begoña) **mr659515741**

♦ Mutilak buzoneo lanak egingo lituzke. **Tt 943 74 44 63**

• **Asteartetik ostiralera** gauez mutilak tabernak garbituko lituzke. **mr** 943 74 44 63

### ESKA1NTZA

• Irakaslea behar da frantseseko klaseak emateko. **mr 943 74 28 00**

• Kamareroo behar da asteburuetan lan egiteko. **mr 943 74 42** 65/943 **74 01 93**

• Sukaldaritzako monitorea behar da ktaseak emateko. **mr 653 01 29 07**

*Pintxadiskos bat behar da tabemarako. **mr 943 74 42 65/943 74 01 93**

♦ Pintxoak egiteko pertsona behar da. Kontratuarekin. **rr 943 74 27 22 (Ignacio)**

• **Neska eta mutila behar dira** astegunetan **arratsaldez** eta asteburuetan txandaka tabeman lan egiteko. **1T 943 74 28 97**

• Umeak zaintzeko eta etxea **garbitzeko emakumea behar da. mr 943 74 41 49/679 29 87 76**

Esperientziadun kamarera behar da egun erdiz lan egiteko. Kontratoarekin. **me 615 76 14 63**

• **Sukaldaria behar da. mr 652 77 82 60 (Julen) / 652 77 82 10 (Elena)**

**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

## Etxebizitzak

*Apartamentua alokatzen da Elgoibarren. mr **943 74 27 47 (20:00-21:00)**

• Seme-alabarik galDeko bikote gazte batek etxea alokatuko luke Elgoibar edo inguruetan. tr **616 37 03 23**

• Eucea salgai Kalamua 2, kalean. 100m2. mr **649 25 90 51**

• Pisua hariuko genuke olokairuan Candanchun eski denboraldiraka. hiru edo lau lagunenizat. tr **659 71 57 22 (losu)**

• **Logela bat** alokatzen dut. **mr 943 74 18 81**

• Logela bal alokatzen dut. 699 **91 31 69**

• **Pisua hartuko** nuke alolcairuan senar-emazte eta umearentzat. Elgoibar erdigunean ahal boda. tr **943 74 01 96 (Mari Soll**

• Bikote gazte batek etxea hartuko luke alokairuan Elgoibar edo inguruetan. **t? 629 98 81 74**

• Bikote gazte batek pisua erosi nahi du Elgoibarren. Gutxienez 70 rn: eta argitsua. **mr 943 19 15 40**

## Partikularrak

• Klaseak ernango nizkieke "t 6 urte teko umeei. **mr 943 74 27 78 (Saioa)**

Hezkuntza Bereziko Magisteritza ikasketak egin dirui eta klase partikulorrak emateko prest nago. **mr 652 71 59 11**

## Lokalak

1 Ura daukan lokal txikia erosiko nuke. **tr 629 626 955**

♦ Lokal merke bat alokatuko nuke. .rr **659 56 74 66**

## Salerosketak

*Txpkurkumeak hartuko genituzke doan. ts: **677 79 54 85**

• **Txakurkume bat oparituko** nuke. 1T **657 79 89 01**

• Citroen ZX 1.400, SS.AL auloo salgai. Oso merke. s **650 32 49 92**

• **90. urteko** Yamaho XT 600 **trail** moiorra salgai. Saltzeko presa dut. Oso merke. **mr 657 79 89 01**

• 2002 denboraldiko Baque taldeko bizikleta salgai. Saltzeko presa dur. Oso **merke. mr 637 79 60 79**

• Aprilia RS50 errepideko motorra salgai. 6 martxa, 6 hilabete, 2.700 km. Urte eta erdirako garantia ofiziala. **e 616 19 13 83**

• **Mitsubishi Moniero luzea** salgoi. Oso egoera onean ire 943 13 **30 64/639 05 46 70**

• **Nintendo** 64 salgai. 5 joku, 2 mando eto transfer pack. Prezioa acioslekо. **mr 943 74 27 89**

*Nintendo 64 salgai. 7 joku, 2 mando eta transfer pack. Prezioa adosteko. **mr 943 74 32 56**

• Citroen ZX **turbo diesel eta Fiai** Cinqueccento autoak salgai. ▪ **609 95 16 41**

*Motor bat salgai oso merke. Husquama 250cc. **Saltzeko** presa daukat, te **679 19 77 61**

# 2. eskuko pianoa erosiko nuke. Egoera onean. scr **943 74** 05 37

## Bestelakoak

• Caritasek berogailua hariuko luke.

fUrrezko eraztuna galdu nuen irailaren 1 3an. Harri bitxizko hiru ilara ditu (gorria, zuria eto urdina). Sarituko da. tr 943 74 **39 52**

# Agurrak

• Zorionak Maiteri gaur, hilak 18, bere urtebetetzea delako. Familiakoen partez.

• Zorionak Ikerri gaur, hilak 18, bere uriebeietzea delako. Lagun baten partez.

♦ Zorionak Paul Estebani bihar, urriak 19, udebere egingo duelako. Jonen parlez



• Zorionak Ane zure 4. urtebetetzean. Ondo pasa astearman. Familiakoak.



Zorionak-felicitats Mireni bere... uriebetetzean, Etxekoen partez.



• Zorionak Jenni, urriaren 15ean 11 uret bete zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak Norari gaur, hilak 18, 4 urte bete dituzulako. Guraso eta familiakoen partez.



Zorionak Mariari hilaren 15ean 2 urte bete zituelako. Gurasoen eta Saroren partez.



• Zorionak Nerea Garcia hilaren 15ean 7 urte bete zituelako. Muxu handi bai gurasoen eta ahizpa Albaren portez.



♦ Zorionak Garazi kartan, urriaren 22an 6 urte beteko dituelako. Gurasoen, familiakoen eta bereziki zure ahizpa Maialenen parlez.



♦ Zorionak Amaia, igandean, hilaren 20on, 5 urte beteko dituzuloko. Muxu handi bat gurasoen, amamaren eta aititaren partez.



• Zorionak Ainara, hilaren 17an 6 urte bete zenituelako. Joneren eta familiakoen partez muxu handi bcd.



♦ Zorionak **Nahia** tegorbeRuri urriaren 20an urtebete egingo duelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Markel,** hilaren 15ean urtebete egin zenue. lako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki lbairen partez.



♦ Zorionak Jon, hilaren 21ean 11 urte beteko dituzulalco. Gurasoen eta zure arrebaren partez.



• Zorionak **Maitane Gallastegiri** urriaren 16an 4 urte bete zituelako. Familiakoen eta bereziki Maialenen parMila kilo muxu.



• Zorionak **Jon Antoni** ren 15ean 6 urte bete ziluelako. Elgoibarko familiakoen partez.





• **Zorionak Nerea 'Blus" eta Leireri** joan zen asteon urteak bete zenituztelako. Koadrilakoen partez.

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Enean. Bigarren solairuan.*
*TeL 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Osteguna-ostirala: 17:00-20:00*
*Larunbata: 10:00-14:00*

## BEKAK

**Euskararen erabilera aztertzeko beka**
Pasaiako Udalak antolatutako beka honen helburua Pasaiako gazteek euskararen inguruan duten jarrera ezagutzea da. Unibertsitateko goi mailako edo erdi mailako titulazioa eta EGA titulua izatea beharrezkoa da. Epea: urriak 31.

**Sendagileentzat espezializazioa**
Puigvert Fundazioak Andrologian espezializatzeko bekak eskaini ditu, medikuntzan edo ehakuntznn lizentziatuentzat. 35 urte baino gutxiago izatca eta ebakuntzan urtebeteko esperientzia izatea eskatzen da. Epea: azaroak 15.

## JARIBUNALDIAK

**Bideo-Foruma**
ARES Eikarteak Urrirako antolatu dituen bideo emanaldiak astelehenero izango dira 18:45etan Amarako "Emest Luch" Kultura Etxean (Anoeta Estadioan).

**Pintura**
"No te separes de nosotros" Euskal Herriko eta Argentinako pintore gazteen erakusketa. Artelekun, Donostian. Epea: urriak 27.

**"Tibet, im4enes de un pueblo"**
Rokpa Euskadik antolatutako Tibeteko kulturarekin erlazionatutako argazki eta objektuen erakusketa. Tibeteko musika eta han egindako hainbat erreportaje ezagutu ahal izango dira. Egiako Kultura Etxean ikusgai urriaren 29ra arte.

## IKASTAROAK

**Mendiko ikastaroak**
Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak 2 ikastaro antolatu ditu urrirako. Mendiko Orientazio ikastaroa urriaren 19tik 20ra eta Mendiko Orientazioko Hobekuntza urriaren 26tik 27ra.

## LEHIAKETAK

Argazki rallya
Eibarko Kirol Klubak argazki rallya antolatu du. Antolatzaileek derrigorrezko ibilbide bat ezarriko dute eta rallyaren gaiak ere adieraziko dituzte. Epea: urriak 20.

Maketa lehiaketa
XII. Euskadi Gaztea Maketa lehiaketa antolatu da. Maketa bakoitzak hiru kanta jaso beharko ditu eta maketarekin ohar biografikoak eta harremanetarako datuak bidali behar dira. Epea: azaroak 3.

## LANA

6 udaltzain
Irungo Udalean 6 udaltzain lanpostu kontratatzeko oposizio lehiaketa. Epea: azaroak 11.

**Informatikako laguntzadea**
Amorebieta-Etxanoko Udalak informatikako laguntzaile postua betetzeko oposaketa lehiaketa antolatu du. LH 11-ko titulua eta 2. Hizkuntza eskakizuna eskatzen da. Epea: urriak 22.

**11 udaltzain Barakaldoko Udalean**
Hutsik dauden Udaltzain kategoriako 11 lanpostu betetzeko aukeraketa probetarako deialdia. Eskola Graduatua edo LHI eta BTP gidabaimena eskatzen da, besteak beste. Epea: urriak 24.

## Xiberuaren Aldeko Kultur Jarduerak

**Urriak 18,** barixakoa
21:30 Berlso afaria
Bertsolariak: Josean Artza, Ninistro, Befiat Ugartetxea eta Jokin Uranga.
Gaztetxean
Tiketak: Txuri-Beltz eta I ratxo
Prezioak: 12 euro/langabetuek 9 euro

**Urriak 20,** domekia
12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua
Herriko Antzokian

## 18 BARIXAKUA

20:00 ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA
"Natura"
Argazkilaria: Gorka Salmeron
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Azaroaren 8ra arte

20:00 ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA
"Shaolin"
Argazkilaria: Isabel Muñoz
Kultur Etxeko sotoan
Antolatzailea: Ongarri Kultur Elkartea



22:00 BIDEO FORUM-A
"Malena, es un nombre de tango"
Hizlaria: Eskarne Larrinaga, psikologoa
Kultur Etxean

## 19 ZAPATUA

12:00 Zazpikiren batzarra
Kultur Etxean

## 20 DOMEKIA

08:30 NAFARROA OINEZ TUTERARA AUTOBUSEZ
Irteera: Sigmako rotondatik
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## 23 EGUAZTENA

19:30 IRITZIAK ELKAR TRUKATZEKO ASANBLADA
Gora Euskal Herria kanpainaren barruan
Kultur Etxeko hitzaldi gelan

## 25 BARIXAKUA

18:00 DIPLOMA BANAKETA EKITALDIA
Txandakako Ingeniaritzako 4. promozioa
IMHn

22:15 KONTZERTUA
Mikel Urdangarin
Herriko Antzokian

## ZINE kluba




### "La Playa de los Galgos"

Zuzendaria: Mario Camus.
Antzezleak: Carmelo Gomez, Claudia Gerini, Ingrid Rubio
Garai batetik hona zinemagile honek kritikoen eta publikoaren aldetik biz diien marginalitatea ezaguna izanagatik, edolaWarrazoi ho gatik, aukera bat eman nahi izan diogu. Camus-ek film honetan ere, bere ideiei eta hauek zinera eramateko moduari leial jarraitzen duelako, alegia. Biolentziari buruzko gogoeta konplexua da. Biktima-erasotzailea binomioa sufrimenduan, gorrotoan eta saminaren bizipenean kokatzen du, eta biolentzia bera dugu substantiboa eta gogoeta ardatz.

## IKASTAROAK

**Langabetuentzako ikastaroak**

Lan Sailaren eta Europako Fondo Sozialaren laguntzarekin, langabetuentzako ikastaroak hasiko dira IMHn: Txirbil arroketa bidezko mekanizatzailea (Markina Etxeberriko enpresa baten lan kontratuaren konpromisoarekin), montatzaile elektromekanikoa eta mekanizazio eta muntaiko operatzailea. Urriaren 28tik aurrera, 30-65 urte bitarteko emakume langabetuentzat Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin Intemeti buruzko ikastaroak hasiko dira (emaweb). Interesatuek dei dezatela IMHra: 943 74 41 32 telefonora.

**Internet ikastaroak**

Jubilatuen Biltokiak 55 gorako pertsonentzat internet ikastaroak antolatu ditu KZ gunearekin elkarlanean. Jubilatuta dauden pertsonei interneten mundua hurbiltzea dute helburutzat ikastaro hauek eta dohainekoak dira. Informazio gehiago edo izena ematea nahi izanez gero, Jubilatuen Biltokiko idazkaritzara joan.

## KONTZERTUAK

**Udal Musika Bandaren kontzertua**
**Xiberoaren alde**

Xiberoarekin auzolanean plangintzaren barruan, lehenengo fasea zena, hau da, diru bilketa, lortu da jadanik. Xiberoaren Aldeko Taideak Elgoibarko herria eskertu nahi du prestatutako laguntzagatik. Orain, kultur ekitaldiak aurkezteko ordua iritsi da. Lehen ekitaldi modura, Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du datorren domekan (urriak 20), Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean, honako pieza hauek joko dituzte: "Vinos Riscal", "Stand By me", "El Barberillo de Lavapies", "Chorale for Tronbone" (Bakarlaria Iban Ginea), "Highlights from chess". Kontzertua12:30ean hasiko da.

## TXAPELKETAK

**Aizkolari Txapelketa Mendaron**

Lehen mailako Aizkolari Txapelketa jokatuko da Mendaronurriaren 20an, Herriko Enparantzan. Partehartzaileak: Donato Larretxea, Floren Nazabal, Jose Migel Periagarikano, Jose Mari Olasagasti, Jose Juan Barberena eta Iñaki Azurmendi. Marka ahaleginak ere ikusi ahal izango dira. Batetik, Inaxio Perurena, 255 kg.ko harriarekin saiatuko da marka berria egiten, eta bestetik, Ugaitz Mugerzak, kana erdiko enborrarekin egingo du marka ahalegina. Saioak 12:30ean hasiko dira. Sarrera: 12 (6 erretiratu, emakume eta haurrentzat).

## ZINEA

**Zinea Euskaraz**

Elgoibarko Udalak Zinea Euskaraz egitasmoarekin jarraituz, ume eta gaztetxoei zuzenduriko film baten emanaldia antolatu du datorren iganderako (urriak 20), arratsaldeko 16:30ean.. "Doraemon eta Hego Itsasoetako Piratak" filmean Doraemon pertsonaiaren abenturak kontatzen zaizkigu. Euskal Herrian ezagunak dira Doraemonen marrazki bizidunak eta oso harrera ona izan dute haur eta gaztetxoen artean. Hiroshi Fujimoto japoniarrak sortu zuen 1974. urtean.

# zine

114 1 F1 D

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**
**"La cosa mas dulce"**
**18,** barixakua: 22:15
19, zapatua:19:30-22:15
20, domekia: 19:30-22:15
21, astelehena: 22:15
**"Doraemon" (euskaraz)**
20, domekia: 16:30
**"La playa de los Galgos" (Z. Kluba)**
22, martitzena: 21:30
24, eguena: 22:15

**EIBAR, Unzaga**
**"Tr x"**
18, barixakua:
19, zapatua: 17:00-19:30-22:30
20. domekia: 17:00-19:30-2 1:30
21. astelehena: 19:30-'2:15
22. martitzena: 19:30-1':15

**"Darknesss"**
18, harixakua: 19:30-22:15
19, zapatua: 17:00-19:30-22:30
domekia: 17:00-19:30-22:30
21, astelehena: 19:30-22:15

3:s
**"Retratos de una obsesin"**
18. barixakua: 22:30
19. zapatua: 22:15
20. domekia:19:30-22:15
21. astelehena: 19:30
**"DoraernoM"**
18, zapatua: 17:00-19:30
19. domekia: 17:00
**"Quiero ser c411110 Beckbam"**



## "La cosa mas dulce"

**Zuzendaria: Roger Kumble.**
**Antzezleak: Cameron Diaz, Cristina Applegate, Salma Blair.**

Amodioa topatzeko orduan mutilekin izan duen zorte txarraz gogaiturik, Christinak (Cameron Diaz), gizon perfektua bilatzeari utzi eta gizonekin konpromisilk gabe ligatzea erabSi du. Jai batean Peter ezac.utuko du, ordea, eta erataz txora-txora illIr maiteminduko da. Peter arrastorik laga gabe desagertuko da eta Christmak bere buruari jarri zizkion arauak alde batera laga eta amodioaren bila joatek rabakia hartuko du.

ZINEA



Aste honetako erretratu zaharra Ziriako Aizpirik laga digu. Argazkia 1955. urte ingurukoa da. San Bartolome Txiki Egunean Errosario kaleko ertz batean aterata dago erretratua. Ikusten den bezala, lur dotorea zeukan kale honek garai hartan, estolda eta guzti. Koadrila honetan azaltzen diren guztiak herrikoi eta ospetsuak izan ziren. Dagoeneko denak hilda daude, baina gogora dezagun zein diren erretratuan azaltzen direnak.

Ezkerretik eskumara: **Julian Izeta** (pala handiko pilotaria), **Manuel Zabala** (eskuko pilotaria), **Pako Aizpiri** (txokolaterua), **Gerardo Arriola** (eskuko pilotaria), **Eulogio Estarta,** (eskuko pilotaria, Estarta y Ecenarro eta "Sigma" josteko makina lantegien sortzailea), **Fructuoso Iriondo** (iturgina), **Alberto Ecenarro** (futbolaria eta Sigmako bazkidea) eta **ezezaguna.**
Makurtuta: **Kristobal Alvarez** (Fundiciones Alvarezeko sortzailea).



***ESKERTZA***

*2002ko urriaren lean, 94 urte zituela hil zen*
*ENCARNACION ALBERDI MUGICAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





***ESKERTZA***

*2002ko urriaren 12an, 75 urte zituela hil zen*
*CRISPULO ALCALDE BASTERRECHEAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*




AURKITU
EUROPAKO 10 HIRIBURU
Asmoak hurutik'
kendu eznida?
Boda,
Gaztekutxan aurkituka dugu,
elkarren artean, zure asmoentzako
burub iderik onena.
BADAKIZU. GAZTEKUTXAN
HASTEN DA ZURE ETORKIZUNA
kutxa


MIKEL
ZURDANGARIN
heldu artean
MIKEL
URDANGARIN
URRIAK 25, ostirala
gaueko 22:15ean
HERRIKO ANTZOKIAN
Sarrerak aurrez salduko
dira Kultur Etxean
(Euskara Sailean)
07:30etatik 15:00etara
Salneurria: 5,25 €
go
Gipuzkoako
Foru Aldundia
Elgoibarko Udala
Kultura Saila

L.7.1 ⊏L\AI

tiAztF.Eley

**sukalde eta komunerrako aizza[riall**

**awitz ansk**

**proiektuak eta** err









**Arrilaga kalea z/g (postetxe parean) tel.:943 74 43 47**